

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2019ko errolda kobratzea

2019ko urriaren 1etik azaroaren 30era, biak barne, kobratzeko moduan jarriko dira, borondatezko epean, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2019ko ordainagiriak.

2019ko abenduaren 1etik aurrera, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, Dirubilketa Arautegi Orokorrarekin bat etorritz.

Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera badute.

Ordainketa helbideratu gabeak edozein banku bulegotan ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2019ko urriaren 21ean kobratuko zaie.

Santikurutze Kanpezu, 2019ko irailaren 17a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO